

**Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?**

Gure enpresaren ideia aurrera eramateko behar ditugun baliabideak lehenik eta behin giza baliabideak dira.

Alde batetik langileak behar ditugu eta horretarako kalifikatutak dauden langileak kontratatu egingo ditugu. Bigarrenik, gure enpresak non dagoen kokatuta kontuan izan behar dugu, dena eskuragarri duen enpresa bat izan behar da. Beste alde batetik, oso garrantzitsua izan behar da lan egiten dugun animalia-jarioaren kalitatea, argi dago produktuen kalitatea ona izan behar dela. Azkenik, bezeroei irudi ona eman behar diegu, eta horretarako gure enpresak ondo zaindua eta garbia behar da, jokuen kalitatea oso ona ere izan behar da, gure bezeroei konfiantza eta segurtasuna emateko.

